

# Kultur agenda


Martxoak 28 ostirala  
Apirilak 6 igandea

## Joxe migel Zumalaberen margoak ikusgai

Apirilaren 2tik maiatzaren 17ra arte, Joxe Migel Zumalabe Mendiburuaren pintura erakusketa izango da Koldo Mitxelena. Guztira, 50 kuadro egongo dira ikusgai Koldo Mitxelena Ganbara Aretoan.

Joxe Migel Zumalabe Mendiburu 1906ko irailaren 24an jaio eta 1992ko otsailaren 12an hil zen Donostian. Gaztetan hasi eta bizi guztian pintatu zuen, ogibidez beste lan batzuetan jardun zuen arren. Aparejadore eta matematika ikasketak egin zituen. Irakasle ibili zen hainbat urtetan eta gero eraikuntzan lan egin zuen.

Baina Zumalabek bizitzeko ezinbesteko izan zuen artea eta bizitza osoan aritu zen pintura arloan. Bere lanetan lau epe bereiz daitezke eta horiek bilduko ditu erakusketak: 1920tik 1936ra, modernitate bidean; 1940tik 1970era, izadi bizigabeak eta paisaiak izenekoa; 1940tik 1970ra abstrakzioa begira; eta 1970tik 1980ra, abstrakzio geometrikoa. Joxe Migel Zumalabe Mendiburu Joxemi Zumalabe Goenaga Egunkariaren sortzailearen aita zen.



## Ayalaren "Plata dulce" filma

Fernando Ayala zine zuzendariaren "Plata dulce" filma proiektatuko da apirilaren 2an, asteazkena, Antzoki Zaharrean. Federico Luppi eta Julio De Grazia dira bertako aktore nagusiak.

Argentinako arazo ekonomikoez diharduen pelikula hau 1982an egin zuen Ayalak eta bere herriko gizarteari buruz duen ikuspegi garrantza ondo baino hobeto agertu zuen zuzendariak. Film honen istorioa hau da: enpresaburu txiki bat finantza munduan sartuko da eta bizitza zeharo aldatuko zaio talde ekonomiko handi batean sartzen denean. Proiektzioa 20.15ean izango da.

## Ibiltariaren Astea Intxaurren

Ibiltariaren IX. Astearen programazioaren hari-ara, hitzaldiak eta ikus-entzunezko saioak antolatuko dira Intxaurren. Emanaldiak martxoaren 31 eta apirilaren 1, 2, 3 eta 4an izango dira. Alfonso Nuñezek "Por Cuba en bicicleta" hitzaldia eskainiko du; Fernando Odriozolak, "Latinoamerica en bicicleta"; Arantxa Gurmendiak, "Vietnam. Iraganetik abiatu eta etorkizuna lantzen"; Karolina Sainz de Bikuñak, "Viajando tras el Prestige" eta Juan Arrazolak, "Una expedición a través del Pacífico central". Hitzaldi guztiak Intxaurren doko Ipar Haizea elkartearen egoitzan (Bernart Etxepare plazan) izango dira, 20.00etan.

